

## EZ EZAZU AHAZTU

Biharko etxerako lanak dauzkat. Matematikako karratuen edo erro karratuen ez dakit zer. Ikaskideek gelan amaitu dituzte fitxak baina niri ez dit denborarik eman.

Bueno, egia esan, asper-asper eginda nago, ez dut gogorik etxerako lana aurreratzeko eta nahiz eta irakasleak fitxak gaur jaso nahi dituela eta notarako froga bat direla esan duen, nik etxean amaituko ditudala erabaki dut.

Etxean azken hontan ere gerorako uzten ditugu gauzak askotan. Aita eta ama arraro xamar dabilta, gauza denak korrika eta presaka egiten dituzte, burua beste nonbait edukiko balute bezala.

Herenegun, txakurrari bazkaria edariaren katiluan bota zioten ohartu ere egin gabe.

Horrelakoek grazia egiten didate, niri ere noizbait gertatu izan bait zaizkit horrelako "despistek."

Amaren esanetan, familiako despistatuenak nire amama eta biok gara, baina ez da egia.

Batzuetan, ni ikusten nauenean, ezagutzen ez nauenarena egiten du eta besteetan jende pilaz hitz egiten hasten zait, ezagutzen ez dudan jendeaz. Ikusi ezin dudan jendeaz. Kriston istorio bitxiak bizitzen ditu haiekin, baina guk ezin ditugu ez ikusi ezta ezagutu ere.

Horiek ez dira despistek. Jolas modukoak dira edo ez dakit; bekainak goratu, burua astindu eta harridura aurpegia jartzen du amari nor naizen galdetzen dion bitartean eta niri joko honek, berezi xamar sentiarazten nau, nirekin eta aitarekin baino ez bait zaio horretan aritzea gustatzen. Agian, ama jeloskor egongo da.

Denbora asko ematen dut amamarekin, gustatzen zait, elkar ulertzen diogula uste dut eta gainera, ez dit errietarik egiten giltzak, berokia edo dena delakoa ahazten ditudan bakoitzean, berari ere askotan ahazten zaizkio eta.

Horregatik dio amak despistatu hutsa dela, baina amama ez da despistatua. Gurasoek aitortu nahi ez didaten arren, nik badakit zer zen benetan gertatzen zaiona, orain dela aste batzuk jakin nuen.

Asteburu hura Bazterrikan pasa genuen, Ataungo gure baserrian. Aitari mendian ibiltzea gustatzen zaio; naturatik gertu sentitu, haizearen laztana azalean nabaritu, pagoen usainaz busti eta egun batzuk hiritik kanpo pasa.

Baserria zaharra, txuria eta handia da kanpotik. Egurrezko apaingarriak ditu ganbaran, baina euriaren eraginez, zurak nahiko zaharkituta daude. Aspaldian da ez dela han inor bizi eta zenbait landarek hormak eta teilatuak hartu dituzte, polita geratzen da, baina zomorro asko erakartzen ditu horrek.

Barrualdean, lizun usaina duten sukalde, bost logela, despentsa txiki eta egongela zahar bat daude, altzari itxusi eta argazki horitu batzuek apainduta.

Gutxitan joaten gara baserrira, ez da oso eroso eta niri ez zait gehiegi gustatzen bertan lo egitea, armiarmaz beteta egoten da beti. Dena den, amamaren lekurik gustokoena omen da.

Asteburu osoan aritu ginen baserriko zenbait txoko zaharberritzen, garbitzen, inguruak txukuntzen etab. egunak iluntzen zuen arte.

Bueltan etxera joan aurreko azkenengo gauean, denak oheraturik geundela, bat-batean, hots txiki bat aditu nuen pasabidean, kanta moduko bat, baina ezin uler nezakeen zer zioen.

Izututa ohean geratzea erabaki nuen, izarak heldu eta burura ekarri nituen badaezpada ere. Ahotsa geroz eta argiagoa zen, geroz eta hurbilago entzuten nuen kanta pasabidean barrena. Nire gelara hurbiltzen ari zen.

Beldurraren beldurrez, izararekin erabat estali nuen nire burua eta halako batean, norbaitek nire gelako atea zabaldu zuela ohartu nintzen. Segundo batzuk eman nituen izara azpian nor edo zer zen begiratu ala ez erabakitzen, baina kantatzeari utzi, nire ondoan eseri eta nire izena esan zuenean, beldurra kendu zitzaidan. Amama zen.

Zentzurik gabeko gauza asko esaten hasi zitzaidan; baserria ondo zaindu behar genuela, baserrian biharramunean egiteko genuen lan guztia egin, larreko ardiak bildu eta hurbildu ekaitza zetorrelako, akerra ere ekartzeko, baten bat zauritua bazegoen hark sendatuko zuelako etab. Akerraz asko mintzatzen hasi zen, hainbat txorakeria esanez; magikoa zela eta minak sendatuko zizkiela gure abere guztiei.

Abererik eta ardirik ez zegoela baserrian eta bihar ez zela ekaitzarik izanen azaltzen saiatu nintzaion, lasaitzeko asmoz, oso aztoratuta baitzirudien, baina erotuta bezala jarraitu zuen gauza gehiegi batera esaten eta zentzurik gabeko esaldiak botatzen.

Urduri eta zer egin ez nekiela, gurasoak bilatzera altxatu nintzen. Amama orduan, bapatean isildu, niri begira jarri, eskutik heldu eta berriz ere ohean etzateko eskatu zidan. Lasaiago zirudien, pakean. Niregana makurtu eta basora zihoala xuxurlatu zidan.

Orduan, ohetik altxatu, bekokian muxu bat eman eta gela utzi zuen. Ni ere ohetik altxatu eta lehiotik begira jarri nintzen, amama basora joaten ikusteko.

Gau hartatik da ez dudala amama berriro ikusi, noizbehinka abesten zuen abesti horren doinua datorkit burura, baita esan zizkidan gauza guzti haiek ere eta orduan, lehiotik begiratzea gustatzen zait. Esandakoak, benetan al ziren zentzurik gabekoak?

Jendearen esanetan, amamak burua galdu omen zuen. Niri ere burua beste nonbait dudala esaten didate denek; despistatu hutsa naizela, baina nik badakit amama bezala sorgina naizela ni ere eta ez dakit noiz itzuliko den etxera, baina badakit gure baserrian sekretu hori baino gehiago daudela gordeta.